

## Astigarragako XVII. Mendeko sagardo dolare bat zaharberrituko dute zurgintza ikasleek

400 urte baino gehiago dituen sagardo dolare bat berreskuratu, zaharberritu eta berriro muntatuko dute Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdiko hiru lanbide-heziketa zentroetako ikasle gazteen ahaleginari esker. Egitasmoa Peio Martikorena Fundazioak sustatu du “Dolareak” ekimenaren bidez, Astigarragako Udalarekin eta hiru hezkuntza-zentrokekin lankidetzan, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak ko-finantzatuta.

Gaur Astigarragako udal biltegian egindako aurkezpenean, CIF Donibane (Nafarroa), EASO Politeknikoa (EAE) eta Fédération Compagnonnique (Akitania Berria) lanbide-heziketa zentroetako ikasle talde batek Astigarragako Erbetegi-Etxeberri baserriko sagardo dolarearen zaharberritze lanak erakutsi dituzte. XVII. mendeko dolare bat da, urteetan zehar kontserbatu dena eta orain Dolareak proiektuari esker bizia berreskuratu duena.

Aurkezpenean Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea, Marie Heguy-Urain Euroeskualdeko Hiritartasun proiektuen arduraduna eta Compagnons du Tour de France zentroko egurrezko egituren irakasle Iban de la Fuente izan dira. Alkatearen arabera, “Dolareak” proiektuak hiru helburu nagusi ditu: "Dolare zaharrak berreskuratu eta zaharberritzea, gazteei zurgintza lanbide tradizionalak irakastea prestakuntzaren bidez eta mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzea Euskal Herrian programa eleanitz baten bitartez".

"Duela bost mende hasitako bidaia baten jarraipena da hau, baina ez da azken geldialdia. Zaharberritu ondoren, beste etxe bat aurkitu behar diogu dolare honi. Udaletik espero dugu lankidetzaren emankor baten hasiera izatea", adierazi du alkateak.

Bere aldetik, Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko ordezkariak azpimarratu duenez, “gure helburuak betetzen dituen egitasmo baten adibide ona da hau, mugaren bi aldeetako garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzen dituelako, ondarea eta hezkuntza ardatz hartuta, mugaz gaindiko lankidetzaren bidez”.

Compagnons zentroko Iban de la Fuente izango da dolarea zaharberritu eta muntatzeko lanetan parte hartuko duten ikasleak zuzendu eta trebatzeaz arduratuko den irakasleetako bat. "Gaur egun egurren eraikuntzan gero eta gehiago erabiltzen den arren, egur zaharra oso gutxi berrerabiltzen da, moztu eta sutara botatzen baita. Egur zaharrek historia bat kontatzen digute, bizirik daude eta material bezala oraindik ere ezinbesteko garrantzia dute", adierazi du.

Erbetegi-Etxeberri baserria bi etxebizitzatan banatuta zegoen, eta bertan Goikoetxea eta Izeta familiak bizi ziren. Bertakoa ezagutzen den eta gorde den mota honetako dolare bakarra da: Animalien indarraz mugitutako matxaka zuen eta ardatz bikoitzeko dolareari eskuz eragiten zitzaion. Lau pertsona behar ziren ardatz bakoitza lanean jartzeko. Baserrian, sagarra jo, estutu eta lortutako muztio gehiena Donostiako tabernetan saltzen zen. Barrikote bat betetzen zen joaldi bakoitzean eta sagardoa prest zegoenean bizilagunak gonbidatzen zituzten hura dastatzera txalaparta joaz. Hain zuzen, Goikoetxea familia funtsezkoa izan zen perkusio-instrumentu hau mantendu eta berreskuratzeko ahaleginetan, eta Juan Mari Beltranek nahiz Joxean eta Jesus Mari Artze anaiek haiei esker ikasi zuten.

Aipatutako zentroetako ikasleak izango dira dolareari bizia emango diotenak, hainbat urtez altxor gisa gordeta egon ondoren. Antzinako egurra ulertzen ikasiko dute, garbitu egingo dute bere egoera ebaluatzeko eta babes-tratamendu bat aplikatuko diote. Gainera, sagardo dolare batean egurra nola kokatzen zen ikasiko dute, eta egur zahararekin nola lan egin irakatsiko zaie. "Ezagutza hori transmititu nahi diegu, gaur egun egurra tresna modernoarekin lantzen baita, baina egur zaharra eskuz landu behar da", gaineratu du irakasleak.

Dolarea muntatu ondoren, egurra datatuko da bere iraganaren berri izateko, eta 3D eskaneatu digital bat egingo zaio, etorkizuneko prestakuntza-materialetan baliabide didaktiko gisa erabili ahal izateko. "Dolareak' egitasmoari esker, sagardoarekin lotutako gure ondarearen funtsezko pieza bat berreskuratuko dugu, gure kulturaren eta bereziki Astigarragan errotuta dagoen produktua, zeinetan egurrak oso toki garrantzitsua izan zuen, nahiz eta gero eta gehiago ordezkatu den altzairuagatik", adierazi du irakasleak.

*Zaharberritze lanak bertatik-bertara ezagutzeko bisita bat antolatu nahi baduzue edo arduradunekin elkarrizketa bat adostu nahiko bazenute jarri harremanetan gurekin:*

Haritz Rodriguez  
(0034) 620966213  
haritz@nuntia.com